

KUTXA MISTERIOTSUA

Bazen behin, anai-arreba bikote bat, Ekhi eta Maren, aspaldian aitonaren baserrira joan gabe zeuden. Aitona ospitaletik orain dela egun gutxi atera zen, tronbosi txiki bat izan zuelako, nahiz eta, ondoriorik ez izan, laguntza behar zuen baserrian indarra berreskuratu arte. Aste Santuko oporrak zirela eta, Ekhi eta Maren bisitan joan ziren. Urte dexente joan gabe zeuden, baina baserria eta haien logelak berdin-berdin zeuden. Atzeko urteetan ez ziren joan aitona zuen txakurrarengatik. Ekhik txakurren ileari alergia dio, eta azkenengo aldian ospitalean bukatu zuen arnasestuka. Marenek aldiz, denbora asko pasatzen zuen txakurrarekin jolasean eta hori bere anaiari ez zion laguntzen, baina iaz hil egin zen, beraz, Ekhi arazorik gabe joan zezakeen. Maren piska bat goibel zegoen txakurrarekin ezin zuelako jolastu gehiago. Aitona, ez zekien bere bilobak bisitan joango zirela, haiek sorpresa izatea nahi zutelako. Marenek eta Ekhik maletak prestatu eta autobusean baserrira abiatu ziren. Aitona oso pozik jarri zen bere bilobak baserrian ikusi zituenean. Bidaia ondoren nekatuta zeuden iluntze aldera heldu zirelako. Haien gauzak, logeletan utzi, azkar afaldu eta lo egitera joan ziren.

Hurrengo egunean, goiz esnatu behar ziren, lurra lantzeko hurrengo egunean hainbat barazki landatu ahal izateko. Sekula baratzean lan egin gabe, eta hau nekea! leher eginda bukatu zuten eta jolasteko gogo eta astirik ez. Zenbat lan egin behar den nagusien mundu honetan... Baina pozik zeuden aitonari laguntzen ari zirelako.

Bigarren egunean, iratzargailu onenarekin esnatu ziren; oilarraren kantarekin. Atzo gogoratu ere ez ziren egin oiloen arrautzak jasotzeaz eta jaten emateaz. Eskerrak aitona egin zuela, baina hemendik aurrera Ekhi eta Marenek arduratuko zirela, hitzeman zioten. Aitona baratzean egoteko ez zegoenez, aginduak eman zien eta Maren eta Ekhi barazkiak landatzen hasi ziren: azenarioak, tipulak, patatak, urazak, lekak, piperrak... Marenek eta Ekhik ez zuten ideia handirik baratzean ibiltzearena baina ahal zutena egin zuten. Azkenengo barazkia landatu behar zutenean, Ekhik atxurrarekin zulo bat egin zuen, baina zerbait gogorra zegoela iruditu zitzaion; zuloa handiagoa egiten jarraitu zuen, eta kutxa bat aurkitu zuen. Kutxa, metalezkoa zen eta nahiko handia, baina ez zuen asko asko pisatzen. Auskalo noiztik han zegoen! piskat urratuta ikusten zen. Marenek eta Ekhik ez zekiten zer izan ahalko zen, eta intriga askorekin zeuden. Kutxa zabaltzeko irrikan zeuden baina giltza bat behar zuten. Aitonari ezer ez esatea erabaki zuten, haien sekretua zelako. Ekhik lan tresnen artean ezkutatu zuen aitona konturatu gabe. Baratzeke lan guztia bukatu arte ezingo zuten kutxa zabaltzen saiatu, beraz, anai-arreba bikoteak azkar-azkar landatzea eta dena jasotzea erabaki zuten. Irrikan zeuden kutxa hartan zer egon ahalko zen ikusteko.

Baratzean egon eta gero, arratsalde osoa pasatu zuten giltza posible baten bila; bakoitzaren gelan, egongelan, sukaldean, ganbaran, ortuko lan tresnen etxolan... bururatu zitzaien leku guztietan begiratu zuten, baina ez zuten ezer aurkitu, eta beste metodo batzuekin zabaltzea erabaki zuten. Ekhiren ideia, atxur batekin jota, zabaltzea zen, baina Maren ez zegoen ados, barruan zegoena apurtu ahal zelako. Eta Marenen ideia, urkila batekin zabaltzea zen, ideia hori ona zen, baina ez zuen funtzionatu. Ekhik mugikorra hartu zuen, kutxa zabaltzeko ideiarik ez zutelako, eta ea mugikorrarekin kutxa nola zabaltzearen informazioa lortzen zuten, baina ez zuen seinalerik. Maren bere mugikorraren bila joan zen baina bere

mugikorrak ere ez zuen seinalerik. Hau zorte txarra!! Baserrian bi egun zeramaten eta orain arte lan eta lan ibili zirenez, ez ziren gogoratu mugikorra erabiltzeaz, ezta beren gurasoei deitzeaz ere ez. Orduan... barazki guztiak landatu eta gero, aisialdian zer egingo zuten? biak haserre zeudenez, bakoitza bere logeletara joan ziren, ezin lorik egin. Marenek, buruari buelta asko ematen egon zen ohean etzanda zegoen bitartean, eta aitonaren etxeko giltzekin egongo ote zela bururatu zitzaion. Azkar batean, Ekhi ideia kontatzera joan zen. Aitonaren etxeko giltzak lapurtu behar zituzten, baina nola? Plan bat bururatu zuten: aitona gauean lotan zegoen bitartean bere logelara sartuko ziren bere ohe ondoan egongo ziren giltzak hartzera. Plana ondo irten ahal izateko, ez zuten zaratarik atera behar. Gaua heltzear zegoen, eta Maren eta Ekhi plan dena gaizki iritetzeaz beldurrez zeuden. Aitonak zenbat denbora lo hartzeko behar zuen ez zekiten, eta haiek bitartean esna egon behar ziren. Aitona ohean zegoen jada, lo egiten hasteko prest eta Marenek erabaki zuen bera joango zela giltzen bila, ibiltzerakoan zarata gutxiago egiten zuelako. Mareneri luze egin zitzaion itxaronaldia; erlojuari begira aitona noiz lo hartuko zuen zain, eta ia bera loak artu zuen. Orduko batzuk pasatu ziren aitona ohean sartu zenetik, beraz plana martxan jartzeko momentua zen. Aitonaren logelako atea zabaldu zuen, poliki-poliki pauso txikiak emanaz giltzak hartzeaz zegoenean, zarata txiki bat egin zuen eta aitona esnatzen hasi zen, beraz, azkar giltzak hartu eta korrika batean joan zen. Aitona esnatu egin zen baina ez zen ezertaz ohartu eta lotan jarraitu zuen.

Goiz hartan, azkar esnatu ziren eta giltzak kutxaren zerrailan sartzen hasi ziren; aitonaren giltza guztiak handiegiak ziren, eta kutxako zerrailan ez ziren sartzen. Ze zorte txarra! beraz, azkar batean Ekhi aitonaren ohe ondoko mahaian utzi zituen giltzak. Marenek eta Ekhi amore eman zuten, eta bizitza osoa kutxa misterioitsu hortan zer egongo zen intrigarekin geratzea erabaki zuten. Biak triste zeudela, aitonarekin gosaltzera joan ziren; gero, ez zeukatenez ezer egiteko hirurak kartetan jolastu zuten, eta noski, aitona irabazi zituen partida guztiak. Pentsamenduak jolasean ez zituztela antzematen zen. Partida asko eta gero, aitona bilobak animatzeko asmoz, oilategira joateko esan zien.

Muturtuta zihoazten eta arrautzak jaso ondoren, oilategitik irtetean, Ekhi estropezu egin zuen erdi solte zegoen lurreko ohol batekin. Ondo jartzeko asmoz, makurtu zen eta zerbait disdiratsua ikusi zuen. Ene bada! Giltza bat aurkitu zuen! kutxa zabal zetzakeen giltza zirudien. Arrautzak sukaldean utzi zituzten eta korrika batean, joan ziren Marenen logelara, bertan zegoelako kutxa misterioitsua. Giltza zerrailan sartu aurretik, biak urduri zeuden, ea giltza hori izango zen kutxa mistioitsua zabaltzen zuena. Giltza zerrailan sartu eta kutxa lehenengoan zabaldu zuten. Hau poza! Azkenean kutxa barruan zer egongo zen jakitea lortu behar zuten. Biak arrituta zeuden. Kutxaren barrukaldean, hainbat jostailu zeuden: kromoak, kanika batzuk, sokasalto bat, eta eskutitz bat zegoen, argazki batekin batera. Biak isilik, barrutik irakurri zuten eskutiza. Haien amak idatzitako eskutitz bat zen, bera txikia zenean idatzitako eskutitz bat. Bertan, bere etorkizuneko seme-alabei erreferentzia egiten zien. Amaren ametsa bete da; eskutitzan alaba eta semea edukitzekotan Ekhi eta Maren izena jarriko zien. Argazkian, bere ama umea zenean, aitona eta amama gaztetan agertzen dira. Zelako ideia polita haien amarena! eta haiek ere horrelako zerbait egitea erabaki zuten, amaren kutxa eta giltza berrerabiliz.

Aste Santuko, opor hauetan asko disfrutatu zuten eta gainera, mobilik gabe. Haien etxera itzuli eta bere amari kontatu zien gertatutako guztia, eskutitzarena barne. Uda heltzeko

irrikan zeuden aitonaren baserrira itzutzeko eta aitona bisitatzeko, gainera, haien kutxa prest zeukaten, aurkitutako leku berean gordetzeko.

Ekhik eta Marenek seme-alabak edukitzekotan, zenbat denbora pasako da kutxa misteriozua aurkitzeko?

Ane Molinero Carrero
DBH 3B
2025/2026